



Prensa oharra

Kontsumo Handiko sektoreak eman die saria

AECOC-EK IDIAZABAL JATORRI IZENEKO GAZTAREN ALDE ELKARREKIN EGIN DUTEN LANA AITORTU DIE EROSKI-RI ETA ARTZAI-GAZTARI

- **EROSKI eta Artzai-Gazta proiektu batean ari dira elkarrekin kalitate handiko artzain gazta bultzatzeko eta banatzeko**

Madril, 2015eko maiatzaren 20a. [AECOC](#), Kontsumo Handiko sektorearen Espainiako elkarte nagusiak "AECOC Shopper Marketing-Enpresa Txiki eta Ertainak" izeneko sariarekin aitortu du [EROSKI](#)k eta [Artzai-Gazta](#)k elkarrekin egin duten lana Idiazabal Jatorri Izeneko artzain gazta sustatzeko. 2014an, banaketa kooperatibak eta artzainen elkarteak proiektu bat hasi zuten, sektorean aurrendaria dena eta horren garapenean eta iraupenean lagunduko duena, artzain horien beren gazta ziurtagiridunak salduta. Sariaren bitartez, bi erakundeek lankidetzaren lorpenak aitortu dituzte, esanez banatzaileen eta ekoizle txikien arteko lankidetzak jardunak onenetako bat izan dela nekazaritzako elikagaien sektorearen ekoizpen ehunaren aniztasuna indartzeko eta kontsumitzailearengana era efizienteagoan iristeko.

Sariak bereziki aitortzen du ekoizpenaren eta banaketaren arteko aliantza estrategikoa eta horri esker artzainek kalitate handiko artzain gazta hori zuzenean banatu ahal izatea, *cobranding* bat erabilita, EROSKIren hurbileneko dendetan eta Madrilen, Bartzelonan eta horrelako hiri handietan.

"Kontsumitzaileak gero eta interes handiagoa du tokiko produktuetan, kalitate handikoak direlako eta hurkoarenganako sentiberagoa delako; autentikotasuna bilatzen du horretan. Geure helburua da interes hori ekoizle txiki askoren profesionalizatzearekin eta garapenarekin lotzea", esan du Gotzon Elizburuk, EROSKIren Aliantza Estrategikoetarako zuzendariak; hark hartu du saria Luisa Villegas Artzai-Gazta elkarteak koordinatzailearekin batera.

"Aitorpen horrek balioan jarri du Artzai-Gaztaren eta EROSKIren lankidetzak estua; izan ere, horri esker, kontsumitzaileek eskurago izango dituzte produktu autoktonoak eta balioa emango diete horiei, geure ondare kulturala, gastronomikoa eta ingurumenekoa aberasten dutelako", azaldu du Villegasek, AECOCek Madrilen antolatutako Tecnomarketing jardunaldietan saria jasotzean.

Idiazabal Jatorri Izeneko gazten %10 baino gehiago saltzen du EROSKI

Gaur egun, EROSKI Idiazabal Jatorri Izeneko gazta saltzen du. Gazta hori 57 artzainek eginga da eskuz. Hala, erakusten du borondatea duela bere dendak

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es



inguruan ekoiztako janariaren ehun produktiboa indartzeko. Iaz, kooperatibak Idiazabal Jatorri Izeneko %14 gazta gehiago erosi zuen; guztira, 129.000 kilo baino gehiago, eta, beraz, gaztaren ekoizpen osoaren %10 baino gehiago da hori. Horretaz gainera, 2014tik, Idiazabal Jatorri Izeneko Artzai-Gaztako artzainen gazta ari da saltzen kooperatiba, EROSKI SeleQtia markarekin; horrela, marka propioak kalitateagatik nabarmentzen dituen produktuen markaren barnean sartu da gazta hori zuzenean.

"EROSKIren eta Artzai-Gaztaren artean ireki den lankidetzak lerro oso inportantea da oso sektore atomizatua eta erabat eskuz landua den horri iraunkortasuna emateko. EROSKI Artzai-Gazta Madrilen eta Katalunian sustatuta, eskura jartzen dio produktua gazta hau ezagutu eta balioesten duten biztanle nukleo handietako kontsumitzaileari. Era berean, artzainaren lanbideari balioa emateko aukera zabaltzen da; hau da, bizitza, elikadura eta ingurumena ulertzeko modu bat", esan du amaitzeko Villegasek.

Kontsumo Handiko sektoreak gaur Madrilen emandako aitortzaz gainera, EROSKI orain berriki jaso du Idiazabal Jatorri Izenaren sektorearen beraren aitortza, Ordiziako Artzai Egunean, urteko lehen gaztaren aurkezpen ofizialean.

Beste aitortza bat Artzai-Gaztari

Gaur egun, lau probintziatako 111 artzain ari dira Artzain-Gaztarekin Idiazabal Jatorri Izenaren eremu babestuan, hau da, Araban, Gipuzkoan, Nafarroan eta Bizkaian. 2014ko kanpainan, horko bazkideek egindako gaztak Idiazabal Jatorri Izenaren gazta guztien %52 baino gehiago izan ziren; hala, Jatorri Izen bakarra da hori, eskuz egina izanik ere fabrikatatik datorren gazta ekoizpena gainditzen duena.

Artzai-Gaztak aitortza asko jaso ditu bere gazten kalitateagatik; nabarmenenak Mausitxaren eta La Lezeren gaztandegien urrezko eta zilarrezko dominak, Madrid Gourmet ferian emanak eskuz egindako gazten azken lehiaketan, eta World Cheese Awards prestigiotsuak emandako sariak.

Elkartearen asmoa artzain gazta bikaina ekoiztea da, eta nortasunari balioa ematea, hau da, latxa ardi autoktonoaren esne gordinez egindako gazta antzinako metodoz ekoiztea, eskuz alegia.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es